

Urrutikoa gertu, gertukoa urruti

Urrunekoa iruditzen zitzai-
gun. Txinan gertatzen diren
txinatarren gauzak. Zelebren-
keriaren begiratuaz epaitzen
genituen. «Nartzisismo ide-
ologikoa», esplikatu digu
Mikel Aramendik, nazioarteko gaietan adi-
tuak. «Txinarekin gertatzen ari den drama
ideologikoa, mende askotan munduko le-
hen potentzia ez-zuri bat edo ez-europar
bat izatera doala ez onartzea».

Euskal Herriko erizainek ere begiak za-
bal-zabalik behatzen zieten Txinatik zeto-
zen irudiei. «Harrituta ikusten genituen
Txinako erizainen irudiak; Norbera Babes-
teko Ekipamenduak, ilea larru-arras moztu-
ta, lurrean leher eginda...», aitortu du Pilar
Mendiak, SATSE erizainen sindikatuko le-
hendakariak. Geroztik osasungintzako lan-
gileek ez dute patxadarik izan telebistari
begiratzeko. Bizitzaren alderdirik latzena
lehertu zaie begien aurrean eta eskuak eta

bihotzak falta izan zaizkie gaixoak senda-
tzeko eta besarkatzeko.

Urrutikoa gertu konturatzerako. Globali-
zazioaren hariak munduaren txoko urru-
nenak josten dituelako. Baina perfektua ba-
litz bezala saltzen ziguten globalizazioaren
makina ez da hain perfektua. Niko Cuenca
ekonomialariak azaldu digu: «Ustezko ma-
kineria perfektu horretan harritxo bat sar-
tu denean, blokeatu egin da». Subiranota-
sunaz zer pentsatua eman beharko liguke,



osasun subiranotasunaz, kasurako. Musukoak bai edo bai behar ditugun garaian armada espainoleko hegazkinek Txinatik ekarri dituzte musukoak egiteko makinak, Mondragon Taldeak egin ditzan. Pentsa.

Kultura salbatzeko armadaren hegazkinik ez du bidali inork inora. Norbaitek erabaki du kulturaren taupadarik gabe ere bizirik iraun dezakegula. Eta sortzaileak eta haien inguruko langileak lanik gabe geratu dira, haien egitekoak ez omen direlako lehen lerrokoak. Kultura ez omen delako oinarrizko beharra.

Zientzialariek pazientzia ikaragarritz azaldu dizkigute detaileak. «Arazoa izan da birus berri baten aurrean gaudela eta birus

hori hedatzen joan dela. Eta immunitate txikia dagoela», Miren Basarasen hitzak. Hain xume eta hain latz, bere burua kasik garaiezin ikusten zuen jendarte zaurgarri eta zaurituarentzat.

Urrutikoa gertu eta gertukoa urruti. Txinako kontuak etxe ondoan eta gure ondoak urruti. Zenbat denbora egoitzetan dauden nagusiak bisitatu gabe, ukitu gabe, besarkatu gabe. «Birusak ez banau akabatzen, tristurak hilko nau», bota dio amonak bilobari. Sarraskia eragin du covid-19ak zaharren egoitzetan eta oso bistan utzi ditu sistemak lehendik zeuzkan zartatuak. Horiek ere beharko dute neurriko txertoa.

Hezkuntzan, berdin. Orain enbatari eusten ari dira. Ekaitza pasatzen denean, zultuak josteko eta sistema indartzeko unea izango da. Beste ekaitz bat etor daitekeelako? Ez, hezkuntzak izan behar duelako erai-ki nahi dugun jendartearen zutoin.

Igor Gonzalez psikologoak esan digu lasai egoteko, aurrera aterako garela, gure aurrekoak beste miseria eta gerra batzuetatik atera ziren bezala. Baina ezin dugula luza-roan egon eusten eta eusten, «denbora bat igarota gure azalak, bihotzak eta tentsioak beste pertsona bat behar dute atseden hartzeko». Zuen azaletan atseden noiz hartuko zain gaude.

GAUR8

OREKAK EZ DU BALIO LURREAN ZAUDENEAN.
OREKAK EZ DU BALIO ASPALDI JAUSI ZARENEAN.

2021 URTE BERRI-BERRIA
ETA ONA IZAN DADILA